

## Sega

Kongregazioak, tribunalak, idazkaritzak, batzordeak.

Ik. Apezpiku-aulkia; Aita santua; Kuria; Kongregazio erromatarrak.

## Sega

Saturno jainkoaren ezaugarria da, baita heriotzaren sinboloa ere, bereziki giza eskeletoaren irudiarekin edo \*herioarekin batera doanean.

## Segizioa

Sin.: Progua; Dolua; Ahokua

Hiletakoan eta hildakoari lurra ematean kutzaren atzetik joanez hari lagun egiten dion jende-multzoa.

Ik. Progua; Hileta-erritoak.

## Sekta

Latinezko sequor (=jarraitu) hitzetik dator: inoren atzetik ibiltzea adierazten du beraz.

Erliziozko alorrari gagozkiolarik, \*heresiarekin oso hurbileko kontzeptua da. Badu, ordea, sektak, bere ezaugarri berezirik, heresiak ez duena: alderdikeria setatsua, murrizkeria eta buruberokeria, batetik, eta bestetik, buruzagi eta gidaritzat hartzen duen heresi irakaslearenganako atxekimendu beroa eta horren jarraikaritza grinatsua.

Hona, bada, zer litzatekeen sekta: irakatsi heretiko jakin bat edo horren alderdiren bat biziartortzen dutenen talde itxia; irakatsi horretara bihurtzen dute dena eta beren biziera osoa horren argitan ikusten dute; horixe defenditzen dute muturrearainoko grinaz eta horixe zabaltzen saiatzen dira gehiegizko suhartasunez eta buruberokeriaz. Horregatik sekta hitzak badu beste ezaugarri hau ere: ezkutuan edo erdi-klandestinitatean ibiltzea, bai taldearen barrura begira baita taldearen kanpora begira ere.

Edozein erlijio edo Elizak du sekta bihurtzeko arriskua, bere burua zerbait absolutu bihurtzean, halako \*fanatismoz bere burua defenditzean eta halako zoramenez eta harrotasunez taldea hedatu eta handitu nahi izatean. Ik. Proselitismoa.

Edozein erlijio eta edozein Eliza da nolabait bizitzaren zentzuaren orohartzaillea bere baitatik balioztatzean beste edozer, eta, beraz, halabeharrez da orobesarkatzailea, besteren baztertzailea eta murriztailea; horregatik halako irekitasuna, bere baitakoa ez den beste edozer ulertzeko halako gaitasuna, halako oreka eta bere burua erlatibizatzeke ahalmena eduki behar ditu;

horrela bakarrik egingo dio ihes sekta bihurtzeko edonolako arriskuri.

Edozein erlijio edo Elizatik aldentzen diren taldeek nahikoa errazki erori ohi dira akats horietara; horregatik oso sarritan eman ohi diete sekta izena. Edozein zatiketa, bereizketa eta banantzek ekarri ohi du aldenturiko taldearen sekta bihurtzeko joera handia. Ik. Bereiztiarra.

Erantsi daiteke, erantsi, erlijioaren edo Elizaren sekta bihurtzea, horiek beren katolikotasun anitza eta jatorria, beren unibertsaltasun ugaria galtzean etorri ohi dela. Horregatik edozein Eliza partikular deitu izan dute sekta, Eliza unibertsalari kontrajarriak. Horrek ez du esan nahi, ordea, Eliza Katolikoa eta unibertsala edo horko hainbat talde behintzat sekta bihur ezin daitekeenik, fanatismora erortzean, bere baitan ixtean eta bere jarrerak eta izpiritua absolutizatzean. Ik. Elizaren katolikotasuna.

Ez dago sektakeriazkotzat hartzerik errealtatearen alderdi edo barruti jakin bat azpimarratze eta balioztatze hutsa, besterik gabe, arrazoi ugariz eta kontu bereziz nabarmendu eta balioztatu nahi den alderdi horretara dena bihurtzerainoko arrokeriaz, buruberokeriaz eta gehiegikeriaz jokatzeko ez den bitartean, eta halako lehentasunez lantzen den alderdi berezitik beste alderdi guztiak ukatzen ez diren bitartean, edota bakoitzak berea duenez beste edozer ahaztu eta balio gabetzen ez duen bitartean.

Argi dago, biziaren edozein sailetan gerta daitekeela eta maiz gertatzen dela horrelako alderdikeria, ez erlijiozkoaren eremuan bakarrik. Hala ere, erlijiozkoan gertatzen da maizenik, hori halabeharrez orobesarkatzailea delako, hain zuzen ere.

Gertatzen da, ordea, oso maiz, politikaren eremuan ere, erlijioarekin batera orohartzaillea delako hori ere. Horregatik aipatu izan da hain sarritan han edo hemen, halako edo honelako taldeak, halako edo honelako gobernuak egiten duen politika sektakeriazkoa. Ondorioz, gidari politiko suharregiek beren gidaritzaren sektaren jarraikaritzaren gisako zerbait (nortasunaren kultu edo) bihurtzera jotzen dute.

Ik. Eliza; Elkartea; Zisma.

Jesús Lezaun  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

## Sektarismoa

Erlijio-soziologiatiko hitz hori gizarteko bestelako gertakaritara ere zabaldu egin da. Erlijio-erakunde handi edo \*Elizaren batetik talde edo \*sektaren bat bereiz-